

SECCIÓN OFICIAL



63

DONOSTIA ZINEMALDIA  
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN  
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

# A M A M A

ZUHAITZ BAT ERORTZEN DENEAN

TXINTXUA FILMSEK AURKEZTEN DU

ASIER ALTUNA REN FILM BAT



SINOPSI LABURRA	3
SINOPSI LUZEA	3
ZUZENDARIAREN OHARRAK	4
FILMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA	5
ZUZENDARIA	6
AKTOREAK ETA HAIEN PERTSONAIAK	7
TXINTXUA FILMS EKOIZPEN ETXEA	10
FITXAK	10
KONTAKTOA	11



## S I N O P S I L A B U R R A

Familiarteko istorio bat. Baserriaren eta kalearen arteko gatazka, tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka, gurasoen eta seme-alaben arteko ezin ulertua. Tomas eta Amaia, aita eta

alaba, bizitza ulertzeko eta bizitzari aurre egite bi modu dira, elkarren aurka. Eta badoan mundu baten eta badatorren beste baten aurrean, lekuko isila, amama.

## S I N O P S I L U Z E A

Baserria antzinako mundu bat da, berezko bizimoduarekin, jakinduriarekin eta balioekin, gure begien aurrean desagertzen ari den mundu bat.

Baserria familia da, sustraiak mende luzeetan oso sakon sartuta dituena. Familia mundu zaharra eta berria talkan sartzen diren gunea da, gurasoen eta seme-alaben arteko etena ematen den lekua.

Tomasen eta Isabelen hiru seme-alabak mundu zaharraren eta berriaren arteko barne borroka beteak bizi dira. Nola kaletartu baserria ukatu gabe, nola askatu baserritik soka erabat eten

gabe, nola hautatu zer izan nahi duzun familia traizionatzen duzula sentitu gabe.

Amaia baserrian geratuko da, eta haren baitan borrokan bizi diren bi munduak uztartzeko, sorkuntzaren bideari helduko dio. Baina sortzeko hautsi egin beharko du, hautsi baserriarekin, hautsi aitarekin. Eta zauriak eragin, eta soka eten.

Bitartean, bi munduen arteko gatazkaren lekuko mutu, amama. Guztiei begira. haren begiradak gainbeheran doan munduari eta sortzen ari den berriari zentzua eman nahiko balio bezala.



## ZUZENDARIAREN OHARRAK

Amama filmeko pertsonaia bat da, baina esangura berezia du. Amamak gure aurreko amona guztiak irudikatzen ditu. Gure memoria da. Belaunaldiz belaunaldi transmititu den jakituria guztia bere baitan duela dirudi. Edertasun eta duintasun handiko pertsonaia da. Ez du hitz egiten, ez hitzekin behintzat, baina bai begiradekin. Balio sinbolikoa handia duen pertsonaia da.

Amaia biloba da, eta hura da filmeko protagonista. Amaia baserriarekin eta familiarekin talkan dagoen emakume gaztea eta indartsua da. Amaiak badu barne borroka bat: nola baztertu gaur egunean zentzurik ez duten baserriko ohiturak haren aurrekoen jakituria guztia gordez. Katea ez etetea. Baserria hil arren, ondare hori gordetzea, aldatzea, eraberritzea, eta horri zentzu berria ematea. Amaiak haren aurreko laurogei amamak haren parte direla sentitzen du. Eta ia neolitikotik datorkion jakinduria hori guztia beregan duela sentitzeak indarra eta ziurtasuna ematen dizkio berezko bidea bilatu eta egiteko”.

Baserria hiltzear dago, eta baserriarekin batera, bizimodu bat bukatzen ari da, baita izateko era bat ere, munduan kokatzeko modu jakin bat, alegia.

Niretzat oso garrantzitsua zen protagonista emakumea izatea, belaunaldien arteko apurketaz gain, gizonen eta emakumeen arteko talka ere erakutsi nahi nuelako. Horregatik da filmaren ardatza aitaren eta alabaren, TOMASen eta AMAIAREN arteko harreman gatazkatsu hori. Alaba izango da aitari, Tomasi, zuzenean aurre egingo diona. Orduan, aitak, bortizkeria handiz, erabateko etena eragingo du. Amak eta alabak eutsi egiten diote aitaren desafioari, eta, horren ondorioz, aitak bortizkeria utzi, eta, hitzik batere

esan gabe, baina eskulana dela medio, haren sentimentuei bide emango die, etendakoa berriro konpontzeko”.

“Filmak baserria du kokagune nagusi. Baserria nik ondo ezagutzen dudan lekua da.

Ni mundu horretakoa naiz, kate horren parte naiz. Nik dakidala, nire aurreko guztiak baserriari lotuta egon dira. Ni ere, modu batera edo bestera, baserria naiz. Azken hamarkadetan baserrian gertatu izan diren belaunaldien arteko apurketak eta baserria utzi eta kalera jaistearena, hori dena oso ondo ezagutzen dut. Nik ere bizi izan dut filmean kontaktzen dena, nahiz eta ‘AMAMA’ bere horretan erabat fikzioa den.

“Ni oso irudimen handikoa naiz, eta txiki- txikitatik oso modu surrealistan eta neurritz kanpokoan irudikatu dut baserria. Ume nintzeneko baserriaren begirada idealizatu bat da nolabait; baina, niretzat, umetako iruditeria hori inork izan dezakeen altxorrik preziatuena da. Niretzat behintzat, beti izan da inspirazio iturri. Eta, oraingo honetan, irudi horietako batzuk filmera ekarri ditut”.

“Egia esan, filma egiterakoan, nire buruarekin gatazka izugarria izan dut, nire barruak zinema askoz ere libreagoa egiteko beharra sentitzen baitu, ez hain efektista, askoz ere inprobisatuagoa den zinema, lotura narratiborik gabea, irudien indarrean oinarritzen dena. Baina, beste alde batetik, nik neuk ezin dut zinema aspergarria jasan. Gainera, argi daukat zinema narrazioa dela batez ere. Horregatik, irudi iradokitzaileak eta istorioaren narrazioa, biak lotu ditut, eta hasieratik bukaeraraino, ikuslea harrapatuko duen ondo egituratutako filma egitea izan da nire erronka”.

# FILMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Filma 2014an egin zen, 7 astez modu etenean, uztailaren hasieratik azaroaren erdialdera arte. Garrantzitsua zen basoko koloreek udatik negura izaten duten bilakaera jasotzea, baita urtaroen argi aldaketak eta ortuen eta zuhaitzen eraldaketa ere.

Kokapen nagusiak Errezilgo (Gipuzkoa) baserri bat eta Aldatzeko (Nafarroa) baso bat izan ziren. Horrez gain, Azpeitian, Donostian, Hondarribian eta Biarritzen osatu ziren.

AMAMA filmearen talde teknikoa profesional euskaldunetz osatuta dago. Oso ondo prestatutako profesional belaunaldia da, eta *Loreak* bezalako proiektu garrantzitsutan lan egiteko aukera izan dute: Javier Agirre argazki zuzendariak, Telmo Esnal zuzendaritza laguntzaileak, Ander Sistiaga ekoizpen zuzendariak eta Mikel Serrano arte zuzendariak, besteak beste, *Loreak* filmean ere lan egin zuten, gainontzeko taldearen parte handi batekin.

Musikari dagokionez, Asier Altuna Javi P3Z musikariarekin lankidetzan aritu ohi da. Oraingo honetan, Asierrek Mursegorekin lan egin zezala proposatu zion. Horrela, Maite Arroitauregi eibartarrak (MURSEGO) filmeko taldearekin bat egin zuen, eta P3Zrekin batera soinu banda idatzi. Horrez gain, berak jo zituen musika tresnak, eta paper labur bat ere izan zuen, biolontxelistak bat interpretatuz.

Gidoia idazteko prozesuan, hainbat inspirazio elementu gako izan dira: Kirmen Uriberen olerki bat, Sarrionandiaren olerki bat musikatzen duen Mikel Laboaren abesti bat eta Jorge Oteizaren *Quosque Tandem...!* lanaren pasarte bat. Aurreko lanetan bezala (*Topeka, Soroa, Bertsolari*), Asierrek beharra sentitu zuen olerki eta abesti horiek iradokitzen zizkioten irudiak zinemara eramateko, eta, horrela, gidoiaren funtsezko parte bilakatu dira. Kirmen Uriberen kasuan, gainera, aukera ere eduki du sorkuntza-prozesua harekin partekatzeke.

Aktore zerrenda bilatzea aurre-ekoizpenaren unerik sortzaileenetako bat izan zen. Seme-alaben rola interpretatzeko, antzerkitik zetozen aurpegi ez oso ezagunak aukeratu dira, Iraia Elias eta Ander Lipus, kasu.

Asier senarekin gidatu zen, zerrenda biribiltzeko. Amaia pertsonaiak, kolore beltza islatzen zuen, landan eta hirian naturaltasunez mugitzen zen eta indarra eta sentsibiltatea transmititzen zituen antzezlea bilatu zuen. Iraia Elias antzerki aktorea begiz jota zeukan, haren bizitasunarengatik eta begiradaren indarrarengatik, eta, nahiz eta zineman eskarmenturik ez izan, intuizioarekin fidatuz, zerbaitek esaten zigun bide onean geundela. Bete-beteen asmatu dugu. Iraiak ikasteko gaitasun harrigarria dauka, eta berehalakoan bereganatu zituen seteko funtzionamenduaren gakoak, kamera eta filmazio kodea. % 100 Amaia da, gidoian idatzitako pertsonaia, alegia.

Asierrek denbora zeraman Ander Lipusekin lan egin nahian. Aktore gisa asko miresten dugu, gaur egungo euskal interprete onenetako bat baita. Xabiri bitzita emateko, jator eta on-puska itxura zuen antzezle bat behar genuen, eta, aldi berean, erregistro zabala izango zuena, pertsonaiari buelta eman eta serioa eta bizia izateko ekintzak hala behar zuenean: Lipusek badu horretarako gaitasuna.

Agian, aktoreak aukeratzeko prozesuan izandako pasadizorik nabarmenena da Amparo Badiola nola bilakatu zen filmeko AMAMA. Amparo Gipuzkoan jaio zen; baina Frantzia bizi da txikitatik, bertara ihes egin baitzuen Gerra Zibileko errefuxiatu gisa. Asierrek goiz batean ikusi zuen, San Pedroko (Pasaia) taberna batean kafea hartzen. Bat-bateko maitemina izan zen. Haren begiradarekin txundituta geratu zen, eta filmean lan egitea proposatu zion. Amparok ez du inolako esperientziarik interpretazioaren munduan, eta hasieran, ero batek adarra jotzen ziola pentsatu zuen. Azkenean, abenturarekin bat egin zuen, eta lanari erabat lotuta egon den profesional diziplinatua izan da filmazio osoan zehar. Bazirudien bizitza osoa zeramala mundu honetan lanean.

AMAMA posible izan da ETBren, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte-hartzeari esker.

Filmea euskaraz idatzita eta filmatuta dago.



# ZUZENDARIA

## **ASIER ALTUNA IZA, Bergara, Guipuzkoa, 1969**

Zuzendaritza ikasi zuen Andoaingo Zinema eta Bideo eskolan.

Gidoiak idazteko hainbat tailer egin ditu Kubako San Antonio de los Baños eskolan, Venezuelan eta Gasteizen.

## **FILMOGRAFIA ZUZENDARI ETA GIDOILARI GISA**

### **Film luzeak:**

**AMAMA**, 103 min, fikzioa, 2015eko urriaren 16an estreinatuko da aretoetan.

**BERTSOLARI**, 90 min, dokumentala, 2011ko urriaren 12an estreinatu zen aretoetan.

**AUPA ETXEBESTE!**, 90 min, Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua. 2005eko irailaren 23an estreinatu zen aretoetan. Zuzendari berri onenaren Goya sarirako hautagaia.

### **Film laburrak:**

2014 - **SOROA**, 13 min, Donostiako Zinemaldiaren Zabaltegi atalean estreinatua.

2013 - **ZELA TROVKE - BELARRA MOZTEN**, 13 min, Donostiako Zinemaldiaren Zabaltegi atalean estreinatua. 80 nazioarteko jaialdi. 21 sari. Zinema Akademiak metraje luzeko dokumental onenaren GOYA sarirako hautagai gisa aukeratua.

2010 - **ARTALDE**, 8 min, Zinebin estreinatua eta film labur onenaren lehen sariaren irabazlea. 100 nazioarteko jaialdi baino gehiago, 40 sari.

2005 - **SAREAN**, 5 min.

2002 - **TOPEKA**, 4 min.

1999 - **40 EZETZ**, 14 min. (Escrito y dirigido junto a Telmo Esnal)

1997 - **TXOTX**, 15 min. (Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua)

### **Telesaioa:**

2008-2009 - **BRINKOLA**, 35 minutuko 13 kapitulu. ETB 1. Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua.

# A K T O R E A K E T A H A I E N P E R T S O N A I A K



## **IRAIA ELIAS, Zarautz, Gipuzkoa 1980**

AMAMA da haren lehen filmea. Antzerkian, 10 urteko eskarmentua du aktore eta sortzaile gisa.

### **ANTZERKIA:**

- 2015-ean Rouge Eléa konpainiarekin “Zuek” ikuskizunaren estreinaldia Leioako Umore Azokan.
- 2013-an “Gabrielen Lekua” sentikarian sortzaile eta aktore lanetan. Oholtza gainean Ainhoa Alberdi, Oier Guillan, Iban Urizar, Naia Menbrillera eta Rafa Rueda eta Andoni Egañarekin batera.
- 2012-ean “Zertarako hegoak?” Metrokoadroka taldearen antzezlanean sorkuntza eta aktore lanean. Berria egunkariaren 10.urteurrena ospatzeko sorturiko lana.
- 2012-ean “Ta oain ze?” TTak teatroaren antzezlanean sorkuntza eta aktore lanetan.
- 2012-an “Munduan beste” Metrokoadroka sormen laborategiarekin sorkuntza eta aktore lanetan. Eako poesia egunetarako sorturiko ikuskizuna.
- 2011-ean “Eingo al deu amets?” 0-3 urte bitarteko haurrentzat TTak teatroaren antzezlanean sorkuntza eta aktore lanetan.
- 2009-an “Eta Karmele?” TTak teatroaren antzezlanean sorkuntza eta aktore lanetan.
- 2008-an “Moztu!” ( Alproja) kale antzerkian sorkuntza eta aktore lanetan
- 2007-an “Gernikaren heriotza” (Alproja) ikuskizunean antzezle lanetan
- 2006an “Txi-kago kluba” ( Alproja) kale antzerkiaren ikuskizunean sorkuntza eta antzezle lanetan.
- 2005-ean “Grisha” (Alproja) kale antzerkiaren ikuskizunean sorkuntza eta antzezle lanetan.

**Iraia Eliasek Amaia interpretatzen du, familiako alaba. Pertsonaia aldartetsua da, sentikorra, gauzak argi ditu, ez da isiltzen eta aitari aurre egiten dio. Baserriaren mutazioa islatzen du, eta aitaren ondarearekin ez jarraitzearen eta arbasoen oinordekotza errespetatzearen arteko kontraesana bizi du.**



## **KANDIDO URANGA, Zumaia, Gipuzkoa, 1955**

Ibilbide luzea du aktore gisa, zineman, antzerkian zein telebistan. Haren zinema izenburuen artean azpimarratzekoak dira:

- Baztan, IÑAKI ELIZALDE, (2012)
- Bi anai, IMANOL RAYO, (2011)
- Arriya, ALBERTO GORRITI (2011)
- Bosque de Sombras, PABLO MALO (2006)
- Frágil, JUANMA BAJO ULLOA(2004)
- Silencio roto, MONCHO ARMENDÁRIZ (2001)
- Yoyes, HELENA TABERNA(2000)
- El sueño del caimán, BETO GÓMEZ (2000)
- Pasajes, DANIEL CALPARSORO (1996)
- Salto al vacío, DANIEL CALPARSORO(1995)
- Vacas, JULIO MEDEM (1992)
- Ke arteko egunak, ANTXON EZEIZA (1989)
- Ander eta Yul, ANA DíEZ (1988)

**Kandido Uranga Tomas da, aita. Pertsonaia krisian dago, haren autoritatea eta lidergoa zentzua galtzen ari direlako. Lurraren irudikapena da, natura abandonatutako une batean. Oso izaki fisikoa da, bizitza haren eskuekin egiten duen lanaren bitartez ikusten duen gizona, alegia. Ahozko plano batean bizi diren seme-alabekin komunikatzeko arazoak ditu; baina, azkenean, sentikortasunaren eta egokitze gaitasunaren gaineko lezioa ematen die.**



**AMPARO BADIOLA, Pasaia, Gipuzkoa, 1931**

Amama familiako amona da, antzinako munduaren irudikapena. Dotorea, isila, ederra, arkaikoa, galanta eta zimurra da. Ile luze zuria dauka, mototsean bilduta. Beti arropa ilunez. Beti isilik. Beti hor. Arbasoen memoria da. Neolitikotik izandako amona guztiak eta belaunaldiz belaunaldi transmitutako jakinduria eta ezagutza guztia irudikatzen ditu.



**ANDER LIPUS, Markina-Xemein, Bizkaia, 1971**

Aktorea eta antzerki ikertzailea. Euskal eszenan aitorpen handia lortu du. Antzerkian eskarmentu zabala dauka, aktore, zuzendari eta antzerkigile gisa. Zineman, hainbat film laburretan eta Pedro Mari Santosen *Agujeros en el cielo* film luzean parte hartu du.

Lipus Xabi interpretatzen du, "seme alferra", hain zuzen ere. Sehaskatik darama leloa erantsita, eta haren rolera egokitu da, umorea erabiliz. Filmean, gatazka hazten denean, pertsonaiaren beste aurpegi bat ezagutzen dugu, eta aitari arazoak konpon ditzala eskatzen dion gizon serio eta irmo bilakatzen da.



**KLARA BADIOLA, Donostia, 1954**

Bi anai, IMANOL RAYO, (2011)  
Arriya, ALBERTO GORRITI (2011)  
Un poco de chocolate, AITZOL ARAMAIO (2008)  
La buena nueva, HELENA TABERNA (2008)  
Vacas, JULIO MEDEM (1992)  
Todo por la pasta, ENRIQUE URBIZU (1990)  
La fuga de Segovia, IMANOL URIBE (1981)

Klara Isabel da, ama, familiaren bihotza. Bi belaunaldien arteko zubia da, klana batera mantentzen duen indarra, erdigunean beti irmo mantentzen dena.



**MANU URANGA, Zumaia, Gipuzkoa, 1980**

Artista honen azken lanek espazioaren eraldaketa fisikoak aztertzeke prozesuen gaineko hausnarketa irekia egiten dute, eskulturaren eta ikus-entzunezko hizkuntzaren bitartez. Banakako eta taldeko hainbat jardueratan eta erakusketatan parte hartu du, eta sariak eta sormenerako diru laguntzak jaso.

Manu Gaizka da, baserria oinordekotzan hartzeke aukeratutako semea. Erantzukizun horretatik "ihes egiten du", eta horrek ordaintzeke dagoen zorraren pisua uzten dio.





**NAGORE ARANBURU, Azpeitia, Gipuzkoa, 1976**

Aktoea, gidoilaria eta zuzendaria. Haren ibilbidea zineman, antzerkian eta telebistan garatu da. Antzerkian egindako lanarengatik aitortua da batik bat, eta, hain zuzen ere, hainbat interpretazio sari jaso ditu. Zineman, film hauetan izandako parte-hartzea nabarmen dezakegu:

Loreak, JOSE M GOENAGA y JON GARAÑO, (2014)

El Negociador, BORJA COBEAGA, (2014)

La Herida, FERNANDO FRANCO (2013)

Urte berri on Amona, TELMO ESNAL (2011)



# TXINTXUA FILMS EKOIZPEN ETXEA

2008an, Marian Fernandezek eta Asier Altunak Txintxua Films fundatu zuten. **BERTSOLARI** me-traje luzeko dokumentala ekoizi du, Donostiako Zinemaldiko Atal Ofizialean aurkeztu zena 2011n.

**AMAMA** dugu haien bigarren film luzea.

Horrez gain, zortzi film labur ekoizi dituzte, eta horiekin, harrera ona izan dute nazioarteko jaialdietan, baita sari ugari lortu ere.

## FITXA K

### FITXA ARTISTIKOA

#### AMAIA

Iraia Elias

#### TOMÁS

Kandido Uranga

#### ISABEL

Klara Badiola

#### AMAMA

Amparo Badiola

#### XABI

Ander Lipus

#### GAIZKA

Manu Uranga

#### SARA

Nagore Aranburu

### FICHA TÉCNICA

#### ZUZENDARIA

Asier Altuna Iza

#### EKOIZLEA

Marian Fernández Pascal

#### EKOIZLE EJEKUTIBOAK

Marian Fernández y Asier Altuna

#### GIDOIA

Asier Altuna, con la colaboración de Telmo Esnal y el asesoramiento de Michel Gaztambide

#### ARGAZKI ZUZENDARIA

Javier Agirre Erauso

#### MUNTAIA

Laurent Dufreche

#### MUSIKA

Javi P3Z y MURSEGO

#### ZUZENDARI ARTISTIKOA

Mikel Serrano

#### SOINU DISEINUA

Haimar Olaskoaga

#### ZUZENEZKO SOINUA

Pablo Bueno

#### JANTZIAK

Leire Orella

#### MAKILLAJEA

Lola Lopez

#### ILE-APAINKETA

Itziar Arrieta

#### EKOIZPEN ZUZENDARIA

Ander Sistiaga

#### ZUZENDARI LAGUNTZAILEA



Telmo Esnal

#### LUZERA

103 min / 1,1:85 / COLOR / 2K

#### HIZKUNTZA J.B.

EUSKARA



## K O N T A K T O A

### **EKOIZPEN ETXEA TXINTXUA FILMS**

Avd. Pasajes de San Pedro 19, 20017, Donostia  
[www.txintxua.com](http://www.txintxua.com)  
[txintxua@txintxua.com](mailto:txintxua@txintxua.com)  
+34 943 39 33 80  
+34 659 493 647

### **BANATZAILEA GOLEM DISTRIBUCIÓN S.L.**

Avda Baiona, 52, 31008, Pamplona/Iruña  
[www.golem.es/distribucion](http://www.golem.es/distribucion)  
[golem@golem.es](mailto:golem@golem.es)  
+34 948 17 41 41

C/ Martín de los Heros, 14, 28008, Madrid  
[www.golem.es/distribucion](http://www.golem.es/distribucion)  
[golem@golem.es](mailto:golem@golem.es)  
+34 91 559 38 36

### **NAZIOARTEKO ZINE JAIALDIAK ATERA FILMS**

C/Ametzagaña 9, 20012 Donostia  
[www.aterafilms.com](http://www.aterafilms.com)  
[info@aterafilms.com](mailto:info@aterafilms.com)  
+34 943 116 410